

# Aalborgeko Baldintzak

Tokiko gobernantzaren osoko potentziala askatuz, klima aldetik neutrala, bidezkoa eta erreslientea den Europara zuzendutako eraldaketa demokratikoan

**Gobernantza konpartitua**  
**Finantziazio integratua**  
**Trantsizio kohezionatua**



**10<sup>TH</sup> EUROPEAN CONFERENCE ON  
SUSTAINABLE CITIES & TOWNS**

AALBORG | DENMARK | 1-3 OCTOBER 2024

Aalborgeko Baldintzak Europako Hiri Jasangarrien mugimendu iraunkor batean oinarrituta garatu dira azken 30 urteetan, Europako akordio eta politika globalei erantzunez. Besteak beste, honako mugarrak hauen gainean eraiki dira:

- **Aalborgeko Gutuna** (1994) tokiko kontsulta-prozesuak sartuz,
- **Aalborgeko Konpromisoak** (2004) tokiko helburuak sartuz,
- **Euskal Adierazpena** (2016) aldaketa sistemikoa sartuz, eta
- **Mannheimgo Mezua** (2020) tokiko Itun Berdeak sartuz.

Besteak beste, honako hauei buruz hausnartzen dute eta erantzuna ematen diete: Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarriaren Agenda eta CJHak, Parisko Akordioa, Kunming-Montrealgo Biodibertsitatearen Esparrua, Leipzigeke Gutun Berria, EBko Itun Berdea eta klima-neutraltasuna eta lehiakortasuna EBn inplementatzeari ematen zaion garrantzi gero eta handiagoa.

## EZ JARDUTEAREN ESPIRALA

Klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera eta ekosistemen degradazioaren moduko ingurumen-krisi globalei buruzko kontzientzia eta ezagutza publikoa areagotu egin dira azken urteetan. Aurrerapen nabaria egin den arren, azken datuek erakusten dute hau ez dela aski izan eta premia dela ahalegin handiagoak egitea. Aldi berean, krisia modu eraginkorrean arintzeko aukeraren lehoa gero eta gehiago ixten ari da etengabe.

Neurri asertiboagoak denbora-tarte laburragoetan inplementatzeko presioak aldaketaren erritmoa azkartzen du, eta, gainera,

kostuak eta beharrezkoak diren inbertsioak areagotu ere egiten ditu. Horrek gehiegizko kargaren inguruko beldurra handitzen du gizarte-taldean eta herritarren artean.

Horrelako beldurrak kentzera soilik zuzentzen diren erreakzio eta mezu sinplistik huts egiten dute aurrez aurre ditugun arazoei modu egokian heltzerakoan. Izan ere, horren ordez lortzen dutena da gure gizartearen eraldaketa kohesionatu eta demokratikoa eragozte eta berrikuntza balaztatzea, eta are gehiago atzeratzen dituzte krisiak gainditzeko beharrezkoak diren aldaketak.

Izatez, horrek eraman dezake ekosistema globalen narriadura azkartzera eta hondamendien eta nahi gabeko inpaktuen maiztasuna handitzera. Nolanahi ere, hondamendi eta espero gabeko krisi gehiago gertatzen badira, seguruenik horrek eramango du epe laburreko erantzun azkar eta erabakigarriak neurri handiagoan eskatzera, eta horrek badu arrisku bat, alegia, erantzunak modu desegokian prestatuta egotea, bidegabek izatea eta goitik behera kudeatuta egotea -eta hori da, hain zuzen ere, jendeak nahi ez duena-.

## TOKIKO GOBERNANTZAREN POTENZIALA

Hiriak eta hiri-eskualdeak oso desberdinak dira euren esparru geografiko, egitura ekonomiko, garapen historiko eta biztanleriaren osaerari dagokienez. Beraz, klima-aldaketak, kutsadurak eta biodibertsitatearen galerak sortu ditzaketen inpaktuak ere asko aldatzen dira batetik bestera. Horrenbestez, klima-neutraltasunera eta erresilientziara zuzendutako edozein estrategia europar edo nazional tokiz toki inplementatu beharko da azkenean. Gaur egun, milaka hirik eta toki-gobernuk jadanik garatu dituzte klima eta energiari buruzko plan integratuak, biodibertsitatea eta natura babesteko estrategiak, hiri-mugikortasun jasangarriko planak, Tokiko

Itun Berdeak edo Hiriko Klima-akordioak, haien erronkei erantzunez eta Europako helburuekin eta helburu globalekin bat etorritik. Kasu gehienetan, tokiko interes-taldeek eta gizarte zibilak parte hartu dute prozesu horietan.

Mezu laburrak eta informazio arina eta batzuetan kontraesankorra etengabe mugitzen den garai honetan, hirietako eta tokiko gobernuak epe luzerako oinarriak sortzen ari dira trantsiziorako, euren herritarrekin eta interes-talde garrantzitsu guztiekin sorkuntza bateratuan arituz. Herritarrengandik gertuen dagoen gobernu-maila gisa, emaitza ukigarriak eskaini behar dituzte modu garden eta arduratsuan, eta horregatik azpimarratzen dute inplementazioa eta modu inklusiboan aritzen dira tokiko erronketarako tokiko irtenbideak bilatzerakoan. Era horretan, tokiko gobernuak funtsezko rola jokatzen dute demokrazia babestean -orokorrean- eta -zehazki- gure gizartearen eraldaketa modu demokratikoan kudeatzean, eta, hala, haiek dute potentzialik handiena hautemandako mehatxuak eta zamak klima aldetik neutrala, bidezkoa, lehiakorra eta erresilientea den Europari buruzko ikuspegi positibo bihurtzeko.

## ESATEN DUGUNA BETE ERE EGITEN DUGU.

Geuk, hirioi eta tokiko gobernuok, klima eta jasangarritasunari buruzko estrategia eta proiektu integratu handinahiak sortu ditugu arrakastaz Europan. Aliantzak ezartzen ari gara enpreekin eta gizarte zibilarekin, horren bidez segurtatzeko tokiko alderdi garrantzitsu guztiek bere egiten dutela eraldaketa. Ehunaka hiri eta herri Europan eraldatzearen bitartez, merkatuak sortzen ditugu industria garbietarako eta lanpostuak jendearentzat, eta Europaren eta bere herrialdeen erresilientzia eta lehiakortasuna indartzen ditugu. Esaten duguna praxira eramaten dugu, eta prest gaude honako hau egiteko:

- **Lidergo sendoa ezartzea** gure tokiko gobernuetan eta haien zerbitzuetan, klima eta jasangarritasunari buruzko estrategia integratu handinahiak eta ekintza-planak inplementatzeko.
- Gure estrategia eta ekintza-planak **inbertsio-plan** egokiekin sostengatzea.
- Ezagutza ekintzetara azkarrago eramatea, klima- eta jasangarritasun-estrategiak eta ekintza-planak lehenetsiz **giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak banatu edo bideratzerakoan**.
- Gure inbertsioak planifikatzerakoan, klima- eta jasangarritasun-helburu ukigarri eta neurgarrietan oinarritzea eta **gure lorpenez** erregulartasunez **informatzea**.
- Gure herritarrekin komunikatzea eta haiekin kontaktuan egotea eta **garbi azaltzea** eraldaketak berekin dakartzan **erronkak eta hobekuntzak**.
- Inplementatzen ditugun ekintzen eraginez zailtasunak pairatzen ari diren tokiko taldeak identifikatzea eta zaintzea, eta segurtatzea **konpentsazio egokia bideratzen zaiela** eskatzen zaien ekarpena ezin egin dezaketenei.
- Modu **konstruktibo eta iraunkorrean kolaboratzea gure gobernu nazionalekin**, eraldaketarako baldintza legal, fiskal eta finantzariorik onenak segurtatzeko.

## BAINA EZIN DUGU LANA GEUK BAKARRIK EGIN.

Gobernu nazionalak eta Europar Batasuna gonbidatzen ditugu tokiko gobernuarekin lankidetzara erreal eta serioan aritzera eta eraldaketa elkarrekin inplementatzeko behar ditugun esparru-baldintzak sortzera.

# 1. Baldintza: Gobernantza Konpartitua

**Aitortza:** Ahalmena izan behar dugu hiriek eta tokiko gobernuek maila anitzeko gobernantza-sisteman duten funtsezko rola jokatu dezaten, gure gizarteen eraldaketa demokratikoa arrakastaz segurtatu ahal izateko, klima-neutraltasun, justizia eta erresilientziara zuzendutako bidean.

**Errespetua:** Rol aktiboa jokatu behar dugu legegintza-prozesu garrantzitsu guztietan, maila guztietan, zeren hiriak eta tokiko gobernuak baitira Europako erregulazio nazionalaren eta helburu politikoaren parte handi bat inplementatzen duen maila exekutiboa -inplementazio hobea ahalbidetzen duen legedi hobea lortzea da helburua-.

**Erregulazio malgua:** Erregulazio eta politika moldagarriak behar ditugu gobernantzaren maila guztietan, klima-neutraltasunerako eta jasangarritasunerako tokiko estrategia integratuetatik datozen irtenbideak txertatu ahal izateko.

**Elkarrizketa:** Etengabeko truke eta lankidetzak behar ditugu gobernantzaren maila guztietan, honako hau ahalbidetzeko: erregulazio zaharkituak berraztertzea, legezko oztopoak ezabatzea, eta espazio esperimentalak ezartzea, zeren hauek funtsezkoak baitira ikuspegi eta irtenbide berritzaile edo alternatiboak gure hiri eta herrietan probatzeko.

**Helburu konpartituak:** Politika eta erregulazio nazional eta europarrak lortu beharko liratekeen helburuetara zuzendu behar dira, eta ez horiek lortzeko moduaren xehetasunetara.

**Modu bateratuan informatzea:** Klima-neutraltasun, ekitate eta erresilientziari buruzko informazio- eta monitorizazio-egiturek bateratuak, zorrotzak eta behar bezain adimendunak izan behar dute, emaitzen jarraipena egiteko eta egindako aurrerapena erakusteko, eta, aldi berean, egitura horiek datuz hornitzearekin zerikusia duten zama administratiboak minimizatu behar dira.

**Datu berriak:** Askotariko iturrietako datu esanguratsuak eskuratzeko aukera izan behar dugu, monitorizazioa eta txostenak egiteko –sateliteetako datuak eta lankidetzak kolektibo irekia barne sartuta –; halaber, ahal denean, adimen artifiziala erabili behar dugu prozesu honetan laguntzeko.

## 2. Baldintza: Finantziario Integratua

**Konfiantza:** Finantziario-mekanismo publikoak konfiantzan oinarritu behar dira gobernantzaren maila guztietan, eta konfiantza hori zuzendu behar da bai tokiko gobernuen eta haien bazkideen ezagutza eta gaitasunetara eta bai tokiz toki garatutako estrategia eta ekintza-planetara eta tokiko beharretan oinarritutako irtenbideetara.

**Eskala egokia:** Eskala txikiko eta zatikatutako finantziario-programetatik urrundu behar gara eta eskala handiko finantziario-esparruetara pasatu, hirietarako eta tokiko gobernuetarako; programa horiek ekintza-planetan eta horiekin lotutako inbertsio-planetan oinarritu behar dira. Modu garbian adostutako inpaktu-helburuek zama administratiboa eta transakzio-kostuak murriztuko lituzkete.

**Lerrokatze bertikal eta horizontala:** Finantziario-programak hobeto koordinatu behar dira hirietarako eta tokiko gobernuetarako, gobernantzaren maila guztietan; halaber, programak hobeto integratu behar dira ministerio eta sailtako maila bakoitzean.

**Denbora-horizonte errealistak:** Epe laburreko proiektuetan oinarritutako finantziariorik aldendu behar dugu eta epe luzerako strategiara eta helburuetara orientatutako finantziariora pasatu, zeren horrek ahalbidetzen baitie hiriei eta tokiko gobernuari epe luzerako strategiak eta ekintza-planak modu fidagarrian implementatzea.

**Sarbidea:** Hiriek eta tokiko gobernuak sarbidea izan behar dute inbertsioak EB mailan zuzenean finantzatzeko programa garrantzitsuetara. EBren funtsen parte mardul bat hirietarako eta tokiko gobernuetarako erreserbatu behar da, modu eskusiboan, eta hiri eta gobernu horiek zuzeneko sarbidea izan behar dute funts horietara, garbi definitutako ekintza-planak eta KPlak oinarritzat hartuta.

**Finantziario konbinatua:** Erregulazio eta sostengu hobeak behar ditugu irtenbide estruktural berritzaileak garatzeko; helburua da finantziario eta inbertsio pribatua handitzea, klima, ekitate eta erresilientziaren arloetan ditugun helburuak lortzen lagundu dezaketen neurriak eta proiektuak implementatzeari begira.

**Desinbertsioa:** Gure garairako eta gure helburuetarako egokia den finantziario-azpiegitura zabal bat behar dugu nazio eta Europa mailan. Klima-neutraltasunera, ekitatera eta erresilientziara zuzendutako eraldaketa arriskuan jartzen duten praktikei ematen zaion laguntza ekonomiko oro ezabatu egin behar da, Europaren etorkizuneko lehiakortasun ekonomikoa suspertzeari begira.

## 3. Baldintza: Trantsizio Kohesionatua

**Sentsibilizazioa:** Aitortu behar dugu, baita jendaurrean jakinarazi ere, klima-neutraltasun, ekitate eta erresilientziara zuzendutako eraldaketa azkarrak aldaketa kultural eta ekonomikoak dakartzala berekin, eta beldurra sortzen diola gure biztanleriaren parte nabarmen bati.

**Gardentasuna:** Eraldaketaren urrats bakoitzaren inpaktu positibo eta negatiboei buruzko komunikazio garbi eta irekia behar dugu gobernantzaren maila guztietan, eta ez klima globalari dagokionez soilik, baizik eta baita norberaren herrialde, eskualde eta hiriarri eta herritar indibidualei dagokienez ere.

**Mezu erakargarriak:** Eraldaketari buruko narrazio koherente eta positiboa eskaintzen duen komunikazio sendoa behar dugu gobernantzaren maila guztietan. Narrazio horrek azpimarratu beharko lituzke gizartearen oinarrizko sistemen modernizazioak guztiontzat dakartzan onurak, bai oraingo eta bai etorkizuneko belaunaldientzat, giza osasunera arreta berezia zuzenduz.

**Ahalduntzea:** Segurtatu behar dugu gizarte-talde guztiek klima-neutraltasun, ekitate eta erresilientziara zuzendutako eraldaketa eurena balitz bezala bizi dutela, hau da, ez ikusle gisa, eragile gisa baizik. Horretarako, parte-hartzeari garrantzi handiagoa eman beharko zaio estrategia eta ekintza-planen garapen eta inplementazioan, gobernantzaren maila guztietan; halaber, aukera gehiago eskaini beharko zaizkie gizarte-elkarrizketei.

**Prestakuntza mailako birziklapena:** Industrian, merkataritzan eta administrazio publikoan lan egiten duen pertsonalaren prestakuntzan eta birziklapenean inbertitu behar dugu, haren ezagutza eguneratuz, irtenbide berritzaileak modu eraginkorrean bideratu eta inplementatzeko beharrezkoak diren gaitasunak, ezagutza eta baliabideak eskuratu ditzaten.

**Aurreikusteko gaitasuna:** Aldaketak behar ditugu oinarrizko baldintza fiskal eta legaletan, hala nola baliabideen erabileraren gainera zergak jartzea edo jasangarriak ez diren teknologiak eta jardunbideak poliki-poliki ezabatzea, eta aldaketa horiek denbora-tarte luzeagoan zehar inplementatu behar dira, modu fidagarri eta auresangarrian. Horrek ahalbidetuko die tokiko gobernu, enpresa eta herritarrei euren erabakiak eta aukeraketak aurrera begiratz hartzea, horri lotutako arriskuak kudeatzea ahalbidetzeaz batera.

**Elkarrekin batera aurrera egin:** Laguntza behar dugu eraldaketaren ekimenek talde kaltebera edo baztertuengan dituzten ondorio ekonomikoak arintzeko, pobrezia energetikoa edo mugikortasun, etxebizitza eta oinarrizko zerbitzuetarako sarbidean oztopoak dituztenak barne sartuta. Funtsezkoa da sostengu hori inplementatzea konplikazio burokratikoak ezin maila administratibotan gehitu gabe.

# Aalborgeko Baldintzei atxiki

Aalborgeko Baldintzak Hiri eta Herri Jasangarriei buruzko Europako 10. Konferentzian plazaratu ziren, Aalborgen- Danimarka-, 2024ko urriaren 01etik 03ra bitartean, Aalborgeko Gutunaren 30 urteurrenarekin eta Aalborgeko Konpromisoen 20. urteurrenarekin batera. Konferentzia horretan, 500 parte-hartzaile inguruk bere egin zituzten Aalborgeko Baldintzak.

Europako gobernu nazionalera zuzenduta daude, eta baita Europar Batasuneko instituzioetara ere.

**Aalborgeko Baldintzen aldeko atxikimendua irekita dago, eta hiri eta herritar guztiak gonbidatuta daude horien aldeko sostengua adieraztera, hemen: [aalborg2024@iclei.org](mailto:aalborg2024@iclei.org)**

Informazio gehiagorako, gurekin kontaktatu hemen:  
[conferences.sustainablecities.eu](https://conferences.sustainablecities.eu)



**Aalborg  
Kommune**



**10<sup>TH</sup> EUROPEAN CONFERENCE ON  
SUSTAINABLE CITIES & TOWNS**

AALBORG | DENMARK | 1-3 OCTOBER 2024



# HIRI ETA HERRI JASANGARRIEN EUROPAKO 10. KONFERENTZIA

AALBORG | DENMARK | 1 - 3 OCTOBER 2024